



EBAZPENA, HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARIARENA, HAUR HEZKUNTZAN, LEHEN HEZKUNTZAN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN INGELESA EMATEN DUTEN IRAKASLEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DEIALDIARI BURUZKOA.

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Hizkuntza Eskola Ofizialean diharduten irakasleek, oro har, didaktika- eta hizkuntza-gaitasunak gehitu beharra dutenez, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza honek honako hau

EBATZI DU

1.- Haur-hezkuntzako, lehen-hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakasleentzako prestakuntza-jarduera hauetarako deialdia egitea:

- A).- Ingelesa eguneratzeko ikastaroak Erresuma Batuan eta Irlandan.
 - a).- 210 plaza
- B).- Frantsesa eguneratzeko ikastaroak Frantziaan..
 - a).- 16 plaza
- C).- Alemana eguneratzeko ikastaroak Alemanian.
 - a).- 05 plaza
- D).- Ingelesa eguneratzeko ikastaroak Euskal Autonomia Erkidegoan, ingeleseko irakasleentzat.
 - a).- 30 plaza Bizkaian
 - b).- 15 plaza Gipuzkoan
 - c).- 15 plaza Araban
- E).- Frantsesa eguneratzeko ikastaroak Euskal Autonomia Erkidegoan, frantseseko irakasleentzat.
 - a).- 15 plaza Gipuzkoan
 - b).- 15 plaza Bizkaian

2.- Parte har dezaketenak:

a).- Aurretik aipatutako ekintzak sare publikoko zentroetako haur-hezkuntzako, lehen-hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakasleentzat dira, ebazpen honen III. eranskineko betekizunen eta lehentasunen ataletan azaldutakoaren arabera. D eta E ekintzetako ikastaroetan Itunpenetako zentroetako irakasleek ere parte hartu ahal izango dute aipatutako eranskinean agertzen diren baldintzetan.

b).- Berariazko Lanbide Heziketako irakasleak, esleipenaren ondoren bete gabeko posturik geratzen bada, betiere

3.- Ikastaroen funtsezko ezaugarriak Ebazpen honen III. eranskinean agertzen dira.

4.- Parte hartzeko baldintza ekonomikoak:

- a).- A, B eta C taldeko jardueren plaza bakoitzak ondoko hauek jasotzen ditu:
 - 1.- Bilbotik ikastaroko lekurainoko joan-etorria
 - 2.- bidaia-asegurua
 - 3.- ikastarorako matrikula eta materiala
 - 4.- ostatu hartzea eta jatorduak ikastaro bakoitzeko baldintzen arabera.



- b).- D eta E taldeko ekintzetako ikastaroak gainditzen dituztenek GARATU deialdi orokorrean jasotako laguntza ekonomikoak izango dituzte (2008ko martxoaren 12ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2008ko apirilaren 14ko EHAA n argitaratutakoa).
- 5.- Eskaintako ekintzen artean, 1. artikuluan aipatutakoen artean, bat bakarrik aukera daiteke.
- 6.- Eskaerak Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari bidali behar zaizkio eta I. eranskinen ereduaren arabera bete. Bertan adierazi behar dira datu pertsonalak, irakaskuntzakoak, administrazio-egoerakoak (ereduan jartzen duenaren arabera) eta eskatutako ikastaroen kodea, gustukoenetik hasita.
- 7.- Eskaerak ikastetxeko zuzendariaren oniritzia behar du izan. Horrek esan nahiko du eskari-egilea ikastetxe horretako irakaslea dela, bertan lanean ari dela eta emandako laneko eta administrazio-ko datuak egiazkoak direla.
- 8.- Ondoko deialdiren batean plaza lortu dutenek ezin izango dute 1. artikuluan aipatutako ekintzetan parte hartu, ezta jardunean ez dauden irakasleek ere.
- a).- Comenius 2.2.c-n (2007ko martxoaren 5eko EHAA)
 - b).- Comenius 2.2.c-n (2007ko abenduaren 26ko EHAA)
 - c).- Grundtvig 3.Mugikortasuna (2007ko martxoaren 5eko EHAA)
 - d).- Grundtvig 3.Mugikortasuna (2007ko abenduaren 26ko EHAA)
- 9.- Eskaera-egilearen lehentasuna bete dadin, beharrezko agiriak ere erantsi behar dira eskaerari.
- 10.- Eskaerak ikastetxeari dagozkion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren informazio unitateetan eta Pedagogia Berrikuntzako buruzagitzetan aurkeztu behar dira, 2008ko maiatzaren 9ean beranduenik ere. Eskariak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehazturiko edozein egoitzatan.
- 11.- Jatorrizko sinadura eta zigilurik ez dituzten eskariak ez dira onartuko, ezta fax-ez bidalitakoak ere.
- 12.- Plazak esleitzea:
- a).- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak batzorde bat eratuko du, plazak esleitzeko proposamena egin dezan. Honako hauek osatuko dute: Irakasleen Hobekuntzarako Zerbitzuko buruak –lehendakaria izango da-; zerbitzu horretako teknikari batek –idazkaria izango da-; eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak izendaturiko bi funtzionariok.
 - b).- Parte-hartzaileak aukeratzea.
 - 1). Prozesu honen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak ikastaro bakoitzerako:
 - a) Eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duten eskatzaileen eskaerak baztertu egingo dira.
 - b) Gainerako eskatzaileak ikastaro bakoitzaren fitxan berariaz ezarritako lehentasunen arabera ordenatuko dira. Lehentasun-gradua 7tik beherakoa dutenek ikastaroan lehentasunez parte hartzeko eskubidea izango dute. Lehentasun-gradu orokorra, lehentasunez parte hartzeko eskubiderik ez dagoela adierazten duena, 7 da. Ondorio horietarako, Garatu 05/06 eta 06/07 jardueretan onartuak izan eta arrazoirik gabe jardueretan huts egin dutenek 8ko lehentasun-gradua izango dute, eta gainerako eskatzaileei hautapen-irizpideak aplikatu ondoren plazaren bat hutsik duten ikastaroetan bakarrik hartu ahal izango dira kontuan.



- c) Lehentasun bakoitzari dagokionez ezarritako baremoak aplikatuko dira (II. ERANSKINA).
- b) Puntuetan berdinketarik gertatuz gero, ikastetxearen bekadun portzentajeri begiratuko zaio. Berdinketak lehengo berean badirau, zerbitzu-denbora hartuko da kontuan.
- e) Plazaren bat esleitu gabe geratzen bada, epez kanpo aurkeztutako eskaerak onartu ahal izango dira, betiere, eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
- f) Eskatzailea onartua izan daitekeen plazetatik, eskari-orrian jasotako lehentasun-ordenaren arabera aukeratuko da eskatzaileari esleitu behar zaiona.

2). Hautaketa-prozesuaren ondoren, honakoa izango da eskatutako ikastaroei dagokienez eskatzaileek izango duten egoera:

- a) Onartua: eskatzaileak plaza izango du ikastaroan.
- b) Erreserban: eskatzaileak ez du plazarik izango, eskaerak plazak baino ugariagoak izan direlako.
- c) Baztertua: eskatzaileak ez ditu deialdian edo ikastaroen fitxetan adierazitako baldintzak bete, edo aldien arteko bateraezintasuna dago.

3).- Eskatzaileak baztertzeko arrazoiak:

- a)- A: eskabidea behar bezala ez betetzea
- b)- C: lan-egoera
- c)- I: aldien bateraezintasuna
- d)- K: berariazko baldintzaren bat ez betetzea
- e)- L: ikastaroa ez da egingo
- f)- H: uko egitea, bidezko arrazoiengatik
- g)- Z: uko egitea, bidezko arrazoirik gabe

13.- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ebatziko du deialdia, behin-behineko ebazpenaren bidez. Ebazpena 2008ko maiatzaren 19an emango da argitara, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako hezkuntza berrikuntzako eta informazioko unitateetan. Bertan eskaera-egileen zerrenda jarriko dugu eta han azalduko da ikastaroetara nor joango den.

14.- Interesdunek erreklamazioa egin dezakete. Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Buruzagitzetan egin beharko dute, 2008ko ekainaren 4ra arte, egun hori barne.

15.- Aurkeztutako erreklamazio horiek ebatzi ondoren, behin betiko ebazpena emango da, esandako leku horietan bertan. Behin betiko ebazpen horren aurka, interesdunek gorako errekurtsioa jar diezaiokete Hezkuntza sailburuordeari. Ebazpen hori jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epea izango dute errekurtsio hori jartzeko.

16.- Behin betiko esleipena egin ondoren eta aparteko arrazoirik ez badago, ezin izango da uko egin; aparteko arrazoi horiek Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak baloratuko ditu. Ustekabeen arrazoizko den arazoren bat gertatu eta parte-hartzaileak plazarari nahitaez uko egin behar badio, Hezkuntza Berriztatzeko dagokion Lurralde Buruzagitzari jakinarazi beharko dio berehala, eta arrazoi hori azaltzeko agiriak bidali. Arau hori bete ezean, parte-hartzaileak datozen hiru urteetan ezin izango du inolako laguntza, beka edo ikastarorik jaso.

17.- Ikastaroa bukatu ondoren, ikastaroaren erakunde arduradunak Irakasleen Hobekuntzarako Unitatera bidaliko du akta. Bertan parte-hartzaileen zerrenda adieraziko da, baita horiek gaitzat edo ez gaitzat jotzen diren ere. Inor ezin izango da gaitzat jo ikastaroko orduen % 80ra joan ez bada eta ikastaroan programatutako jarduera guztiak ez baditu gainditu.



18.- Horrez gain, partaide guztiek ikastaroaren hainbat atal baloratzeko txosten bana egin eta adierazitako administrazio-unitatean entregatu beharko dute, normalean ematen den galdera-sortaren ereduaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 21a

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

Izp. / Fdo.: Juan José Agirrezabala Mantxola

**II ERANSKINA
BAREMO OROKORRA**

A) Administrazio-egoera.	gehienez 6 puntu
1.- Sailaren menpeko ikastetxeetan karrerako funtzionarioa edo lan-legepeko kontratu mugagabea duena izatea:	4 puntu
2.- Egonkortasuna duen bitartekoa edo ordezkoa izatea:	3 puntu
3.- Ikastetxe pribatuetan lan-legepeko kontratu mugagabea duena izatea:	2 puntu
4.- Kendu diren unitateetako irakasle izatea:	2 puntu
B) Lan-esperientzia.	gehienez 4 puntu
Hezkuntzan lanean emandako urteak 2008ko apirilaren 30 arte (hori barne) 0,5 puntu urteko, 0,042 hilabeteko, 0,0014 eguneko.	
GUZTIRA, GEHIENEZ	10 puntu

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**

*Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaritza
Irakaslegoaren Hobekuntza*

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

*Dirección de Innovación Educativa
Perfeccionamiento del Profesorado*